

ESKUALDEKO HIRI GARRAIOAREN ZERBITZUA EMATEAGATIKO TRIBUTU IZAERA EZ DUTEN ONDARE PRESTAZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta egin aurretik, aipatutako ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

- 1.- Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzea.
- 2.- Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren tarifak ordaintzeko beste ordainbide batzuk erabiltzeko modua ematea, eta bai garraio-txartela birkargatzeko beste era batzuk ere.
- 3.- Eskudirua gutxitzea autobusaren barnean.
- 4.- Beharrezkoa izanez gero, egun indarrean dagoen ordenantzan aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

- 1.- Transports Ciutat Comtal S.A. enpresa kontzesiodunaren eskariz, gidariaren atzealdean kokatuta dagoen txarteletarako makina egokitzea Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzua ordaintzeko egokiak diren garraio-txartel guztiekin ordaindu ahal izateko (egun, garraio-txartel izengabeekin baino ezin da ordaindu).
- 2.- Eskualdeko Hiri Garraioa ordaindu ahal izateko beste ordainbide batzuk egokitzea (EMV kontakturik gabeko banku-txartela, QR kodeak...).
- 3.- Prozedura izapidetzen dela baliatzea, beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egiteko.

Arauaren helburuak.

1.- Eskualdeko Hiri Garraioan baimenduta dauden garraio-txartel guztiekin gidariaren atzean kokatuta dagoen txarteletarako makinan ordaindu ahal izatea egokitzea, zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzeko helburuarekin, bidaiariak autobusera sartzeko denborak murriztean.

2.- Garraio publikoa erabiltzea herritar guztiei erraztea, bertan sartzeko beste ordainbide batzuk egokituta: EMV banku-txartelak, NFC mugikorrarekin ordaintzea, QR kodeak mugikorrean eta paperean, eta beste batzuk.

3.- Autobusaren barnean eskudirua gutxitzea. Horrek berekin dakar autobusean sartzeko abiadura hobetzea, gidariaren eta bidaiarien artean eskudirua erabiltzearen ondoriozko gorabeherak deuseztatzea, gidarien eta bidaiarien segurtasuna bermatzea osasun-alerten aurrean, besteak beste, COVID-19aren aurrean, eta abar.

4.- Prozedura izapidetzen dela baliatzea, beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egiteko.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.

Ez dira planteatzen.